



ALKIZAKO UDALA

## **UDALBATZARRAK 2022ko AZAROAREN 8an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

2022ko azaroaren 8an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.00etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Inaki Irazabalbeitia Fernandez  
ZINEGOTZIAK : Jose M<sup>a</sup> Aranzabe Urruzola  
Gillermo Jesus Otegi Zubillaga  
Unai Sorarrain Urruzola  
Concepcion Soria Legua  
Koldobika Jauregi Zinkunegi

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DU: Shrabani Aranzabe Pita

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespenak.**
- ✓ 2022ko irailaren 27an egindako ohiko bilkuraren akta.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. Plan orokorraren aurrerakin dokumentuari tartekaturiko alegazioen erantzuna.**
- 5. Tolosaldea Garatzen S.A. Alkizako udalaren baliabide propio izendatzea, hala izendatu duten Tolosaldeko eskualdeko beste udalekin batera.**
- 6. 2022 urterako sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsari-igoera gehigarriaren onespena.**
- 7. Tolosaldea Garatzeni, 2022 urteko 2. Zatiaren ekarpena burutzea.**
- 8. Alkizako erretore etxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzen hobekuntza lanak egiteko proiektuaren aldaketaren onespena.**



ALKIZAKO UDALA

9. Beste batzuk
10. Mozioak, erreguak eta galderak.

.../...

### **LEHEN PUNTUA**

#### **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENAK**

- 2022ko irailaren 27an ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

### **BIGARREN PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 52/2022tik 60/2022 arteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

### **HIRUGARREN PUNTUA**

#### **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

ELECTRICIDAD ZIZURKIL	5.203,00
ALKIZAKO HERRI OSTATUA	1.157,00
ORANGE	35,27
ORANGE	282,74
EBA ERKIZIA	1.805,36
IONE LARRAÑAGA	762,30
EGIMENDI	66,44
MAQUELSA	38,09
OSCAR GALINDO	133,10
LUIX BARRINAGARREMENTERIA	363,00
IZFE	38,66
GUREAK	225,06
QUISER	557,64
SGAE	279,36
GIPUZKOAKO SAGORDOGILEEN ELKARTEA	376,80



ALKIZAKO UDALA

CALPARSORO INDUSTRIAL	90,82
SOLRED	122,00
ARGITU	307,05
OTIS	468,27
NORTEGAS	13,01
TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA	20,18
TRANSPORTES ROTETA	1.028,50
ULAHI ORONA	613,58
URBIETA TRANSPORTES	387,20
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	551,76
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	467,06
GRENKE RENT, S.L.	127,49
CORREOS	10,92
MENDILUZE AITOR	577,66
LUJARNBIO MAIALEN	288,83
UDALATX	576,45
GALTZAUNDI	641,00
ZU ETA BOK	750,01
GOIENER	34,71
GOIENER	1.403,76
GOIENER	358,39
GOIENER	11,81
GOIENER	4,47
GOIENER	13,67
GOIENER	44,12
GOIENER	55,65
GOIENER	578,77
GOIENER	35,21
GOIENER	40,98
GOIENER	61,46
GOIENER	28,62
GOIENER	62,75
GOIENER	252,67
GOIENER	182,24
IZADI LABORATEGIA	152,94
JUAN JOSE ARREGI	476,28
FUNDIBIDE	203,62
FUNDIBIDE	255,15



ALKIZAKO UDALA

ORANGE	35,27
RECAMBIOS IBARRA	1,65
RECAMBIOS IBARRA	11,14
ARRATE IRRATIA	145,20
JOYN MOBILIARIO	17.532,90
JOYN MOBILIARIO	4.700,85
JOYN MOBILIARIO	2.098,50
EUSKAL-HOTZ	8.448,22
OSATU	333,62
GUREAK	173,57

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **56.103,80** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

#### **LAUGARREN PUNTUA**

#### **PLAN OROKORRAREN AURRERAKIN DOKUMENTUARI TARTEKATURIKO ALEGAZIOEN ERANTZUNA**

Ikusita 2022ko ekainaren 28ko udalbatzak erabaki zuela Alkizako udalerriko hirigintza antolamenduaren plan orokorraren aurrerapendokumentua jendaurrean jartzea bi hilabeteko epean.

Ikusirik, aipaturiko iragarkia, 2022ko abuztuaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu zela.

Ikusita aipaturiko epean 3 alegazio egon direla.

Ikusirik, txosten tekniko eta juridikoak.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: - Gregorio Iruretagoyena jaunak eginiko 1. iradokizuna aintzat hartzea eta horrek ondorio gisa du 2. iradokizuna funtsik gabea izatea.



ALKIZAKO UDALA

*1. Lurzoru urbanizaezinaren sailkapenari eustea nire jabetzako lursailetan, Plaza Atzea eta Plaza Atzea 2B alternatibek ukituetan, zehazki, katastroko erreferentzia 03-028*

*2. Modu subsidiarioan, eta Udalak lurzoru horiek birsailkatzea erabakitzen badu, Plan Orokor berriaren araudian sar ditzala Leteberri baserriarekin muga egiten duen lursailaren egokitzapenak estaldura izateko behar diren hirigintza-zehaztapenak, lursail horrek nekazaritza-erabilerarako baldintza ahalik eta egokienak izan ditzan.*

**BIGARRENA:** Kontxi Beobide andreak eginiko 1. iradokizuna aintzat hartzea eta horrek ondorio gisa du 2. eskaera funtsik gabea izatea.

*1. Determinar la clasificación como suelo no urbanizable de los suelos de mi propiedad, caserío Karabela y pertenecidos al mismo, ahora incluidos por el Avance en la delimitación de las alternativas "Plaza Atzea" y "Plaza Atzea 2B".*

*2. Subsdiariamente, en caso de reclasificación de suelos de mi propiedad considerados en este escrito, prever en ellos un desarrollo edificatorio lo mas alejado del caserío Karabela, y con una urbanización pública, o privada de parcela, que respete e incluso prevea las condiciones para mejorar las antepuertsas y entorno inmediato de dicho caserío, garantizando, en cualquier caso, que la solución a adoptar no dificulte los acceso al mismo, ni los de la maquinara utilizada para los trabajos agrarios en los pertenecidos al mismo.*

**HIRUGARRENA:** Jose Ignacio Gabirondo Aranzabe jaunak, Miren Josune Gabirondo Elorza andreak eta Xabier Gabirondo Elorza jaunak eginiko eskaera aintzat hartzea.

*Aurreko iradokizua garaiz eta behar bezala formulatutzat jotzea, eta Alkizako Hiri Antolamendurako Plan Orokor berri egiteko, irizpide, helburu eta irtenbide orokorrak finkatzerakoan, idazki honetan kontuan hartzea.*

**LAUGARRENA.-** Alkizako Udalerriko Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorraren Aurrerapena onartzea. Horren barruan sartzen dira jendaurreko erakustaldian aurkeztutako alegazioak, adostasun txostena jaso dutenak, dokumentuan sartzearen ondoriozko aldaketak, aurreko azalpen zatian arrazoitu den bezala.



ALKIZAKO UDALA

BOSTGARRENA.- Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorraren izapideak egiten jarraitzea eta Plan Orokorraren hasierako onespeneren dokumentua idazteko oinarri izango diren irizpideak eta helburuak hartzea.

### **BOSGARREN PUNTUA**

### **TOLOSALDEA GARATZEN S.A. ALKIZAKO UDALAREN BALIABIDE PROPIO IZENDATZEA, HALA IZENDATU DUTEN TOLOSALDEKO ESQUALDEKO BESTE UDALEKIN BATERA**

Tolosaldea Garatzen S.A. Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil udalerrien Eskualdeko Garapenerako Elkartea da. 1994. urtean sortu zen eskualdearen garapen sozio-ekonomikoa sustatzeko eta programa desberdinetan lankidetzan dihardu garapen ekonomiko eta sozialarekin zerikusia duten erakundeekin, hala nola Eusko Jaurlaritzarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzuarekin (SPRI) eta SPRILUR bere filialarekin, LANBIDEREkin, Estatuko Ministerio desberdinekin eta Europako Gizarte Funtzarekin.

Tolosaldea Garatzen S.A. Eskualdearen Garapenerako Elkartea sozietate anonimoa da, kapital publikoa du eta ez du irabazi-asmorik. Administrazio Kontseiluan eta Batzar Orokorrean, Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkilgo ordezkari politikoak daude.

Tolosaldea Garatzen S.A.k txostena aurkeztu die hogeitazortzi udalei zera esanez, Sektore Publikoa arautzen duen 9/2017 Lege berriak areagotu egin dituela aurreko legetik ere zettorren "Baliabide propioei" eskatzen zaizkien betebeharrak. Zentzu horretan adierazten du Tolosaldea Garatzen S.A.aren estatutuetan ez zela agertzen izaera hori eta, Baliabide propio izateko baldintzak aztertu ondoren hauek betetzen direla. Beraz, udalek Tolosaldea Garatzen S.A.aren esku zenbait lan eta egitasmo uzten jarraitzeko, kontratazio esparrutik aldeniduz,



ALKIZAKO UDALA

Baliabide propio izendatu eta estatutuetan horrela jaso beharko dela azpimarratzen da.

Aurkezturiko txostenean, Baliabide propioari legez eskatzen zaizkion baldintzak aztertzen dira:

- Giza baliabideak eta bitarteko materialak izatea.
- Bere jardunaren % 80a sortzaile diren hogeitazortzi udalentsako egindako lanak izatea.
- Erakundearen gaineko kontrola partaide diren botere adjudikatzailerik izatea, kasu honetan, 28 udalek, eta udalen ordezkari bat erakundearen erabaki organoetan egotea.
- Udalek bultzaturiko lizitazioetan ez duela parte hartuko baldintzatzen da.
- Udalen mandatuen araubide juridikoa zehaztea.
- Esan den bezala, erakundearen Estatutuetan jasotzea.

Baldintzak bete izanaren agiriak aurkeztu ditu Tolosaldea Garatzen S.A.k. Horien artean 2019, 2020 eta 2021eko ekitaldiei buruzko azterketa ekonomikoan argi agertzen da, 9/2017 Sektore Publikoaren Kontratazioa arautzen duen Legearen 32.4 b) artikuluan eskaturikoa, hau da, Tolosaldea Garatzen S.A.ren jardunaren % 80 baino gehiago 28 udalek bere esku utzitako egitasmoen egikaritzan ematen dela. Bestalde, espedientean ere aurkitzen da Tolosaldea Garatzen S.A.k burututako txostena non, besteak beste, 28 udalek egin ahal dizkioten enkarguak aurrera eramateko eskura dituen giza baliabideak eta bitarteko materialak zehazten dituen.

Ondorioz, araudi aplikagarriak xedatutakoa kontuan harturik eta Tolosaldea Garatzen S.A.k aurkezturiko dokumentazioa aztertu ondoren proposatzen da Tolosaldea Garatzen S.A., Alkizako udalaren Baliabide propio izendatzeko onespena ematea, izendapen erabakiarekin bat datozen eskualdeko beste udalekin batera.



ALKIZAKO UDALA

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### **ERABAKITZEN DU**

**LEHENA:** Sektore Publikoaren Kontratazioa arautzen duen 9/2017 Legearen 32. Artikuluan ezarritako baldintzak betetze aldera, Tolosaldea Garatzen S.A., Alkizako udalaren Baliabide propio izendatzea, izendapen erabakiarekin bat datozen eskualdeko beste udalekin batera.

**BIGARRENA:** Udalak egingo dizkion mandatuen araubidea erakundearen xede diren jardueretara mugatuko da.

**HIRUGARRENA:** Izendapen hau, gainerako udalek egingo dutenarekin batera, Tolosaldea Garatzen S.A.ren estatutuetan jaso dadin onartzea. Estatutuek honako edukia jaso beharko dute:

- A) Baliabide propio izaera eskualdeko zein udaletan ematen den.
- B) Mandatuen araubide juridikoa.
- C) Erakundeak ezin izango duela udalaren lizitazio publikoetan parte hartu, baldin eta ez bada hutsak deklaritzen direnean.
- D) Gainerako baldintzak: 28 udalen ordezkariak aginte-organismoetan egongo dela, bere jardunaren % 80 udaletatik jasotako mandatuen izango direla eta giza-baliabide propioak eta bitarteko materialak izan beharko dituela.

**LAUGARRENA:** Izendapen hau kontratazio-profilean argitaratuko da.

**BOSGARRENA:** Erabaki honen berri ematea eskualdeko gainerako udalei, Tolosaldea Garatzen, S.A.ri eta udaleko sail eta azpisailei.

### **SEIGARREN PUNTUA**

### **2022 URTERAKO SEKTORE PUBLIKOAREN ZERBITZUKO LANGILEEN ORDAINSARI-IGOERA GEHIGARRIAREN ONESPENA**

Ikusita, EUDEL-ek bidalitako informazio zirkularra, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsari-igoera gehigarriari buruzkoa, 2022. Urterako, non ondorengoa dioen:





ALKIZAKO UDALA

Urriaren 19an **18/2022 Errege Lege-Dekretua** argitaratu izan da EAAan; bestiak beste, **sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien arloko neurriak onartzen dituena.**

Zehazki, VIII. atalean, 23. artikuluan, Errege Lege-Dekretu horrek honako hau xedatzen du:

**VIII. ATALA. Sectore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien arloko neurriak (...).**

**“23. Artikulua. Sectore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsari-igoera gehigarria, 2022. urterako.”**

1. 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legearen III. tituluko I. eta II. ataletan, eta bat datozen gainerako aginduetan xedatutakoaz gain, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izan ditzan, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsariak ehuneko 1,5eko gehikuntza-gehigarria izango dute, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenei dagokienez.

2. Gehikuntza-gehigarri hori 19.Bi artikuluan xedatutako moduan egingo da, eta honako arau hauek beteko ditu:

*Lehenengoa.* 2021eko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei aplikatuko zaie. Beraz, bien baturak, nolana ere, ehuneko 3,5eko gehieneko ordainsari-igoera globala finkatuko du 2022ko ekitaldirako.

*Bigarrena.* 2022ko azaroko nominan gauzatuko da, eta atzerapen gisa ordainduko da aurtengo urtarriletik urrira bitarteko hilabeteei dagokien igoera.

*Hirugarrena.* Autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen eremuan, ordainketa 2022ko abenduaren 31 baino lehen gauzatu beharko da; eta, nolana ere, 2023ko martxoaren 31 baino lehen.

3. 2022an, salbuespen gisa, Estatuak baimena eman ahal izango die autonomia-erkidegoei epe luzerako zorpetze-eragiketa berriak formalizatzeko; edo baliabideak esleitzeko finantzaketa-mekanismo gehigarrien kontura, 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legearen laurogeita bederatzigarren xedapen gehigarriaren bigarren atalean aipatzen diren gehigarriak, hain zuzen ere, behar den zenbatekoaren baliokidea, artikulua horretan aurreikusitako ordainsari-igoera gauzatzeko.



ALKIZAKO UDALA

4. 2022an kreditu-aldaketak, hau da, aparteko kredituak edo kredituen gehigarriak izapidetzen badira, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege-Dekretuak onartutako Toki-Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 177.6 artikulua aplikatu ahal izango da. Toki-Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 182. artikulua araberan, artikulua horretan araututako ordainsari-igoera finantzatzeko onartutako aparteko kreditua edo kreditu-gehigarria sartu ahal izango da hurrengo ekitaldiko gastuen aurrekontuetako dagozkien kredituetan. Ordainketa 2023ko martxoaren 31 baino lehen egin beharko da. Salbuespen gisa, Toki-Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 177.4 artikulua betetzeko nahikoa baliabide ez duten toki-erakundeek mailegu bat formalizatu ahal izango dute Toki Erakundeak Finantzatzeko Funtzarekin, xedapen gehigarri horren aurreko atalean aipatutako kreditu-aldaketak finantzatze aldera. Horrenbestez, zabaldu egiten da autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen finantza-iraukortasunerako neurriei eta beste neurri ekonomiko batzuei buruzko abenduaren 26ko 17/2014 Errege Lege Dekretuaren 40. eta 52. artikuluetan ezarritako eremu objektiboa. Mailegu horren zenbatekoa ezingo da izan gastuen egoera-orriko 1. kapituluan aitortutako obligazio garbieraren ehuneko 1,5 baino handiagoa, 2021eko aurrekontuaren likidazioaren arabera. Kasu horietan, toki-erakundeek 2023ko martxoaren 31 baino lehen egin beharko dute ordainketa.

Finantzaketa hori eskuratzeko baldintzak, bai eta eragiketa horren finantza-baldintzak ere, Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Ordezko Batzordeak onartuko ditu. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko organo eskuduna gaituko da, beharrezkoak diren jarraibideak edo ebazpenak emateko. atal hori aplikatzeko prozedura zehazte aldera.

5. Estatu-eremuari dagokionez, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzari gaikuntza emango zaio, II. tituluko I. kapituluko eta haren eranskinetako artikuluetako zenbateko zehatzak dagozkien kopuruetara eguneratzeko; bai eta 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei, 19. Bi artikuluko ehunekoari berriaz erreferentzia egiten ez diotenei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legearen III. tituluko I. eta II. kapituluak ere, onartutako gehikuntzaren arabera, eta dagozkion zenbatekoak ordaintzeko jarraibide egokiak emate aldera.

6. Artikulu hori oinarritzakoa da, 5. atala izan ezik; eta Konstituzioaren 149.1.13 eta 149.1.18 artikuluen babesean eman izan da.

Horren berri ematen da, dagozkion ondorioak izan ditzan.”



ALKIZAKO UDALA

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, %1,5eko ordainsari-igoera gehigarria baimentzea, 2021eko abenduaren 31n indarrean dauden urteko ordainsari osoen aldean, Alkizako Udalaren zerbitzura diharduten funtzionarioentzat langileentzat. 2022 urterako ordainsarien igoera osoak ezin du %3,5eko igoera gainditu, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarien aldean.

BIGARRENA: Erabakia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

**ZAZPIGARREN PUNTUA**  
**TOLOSALDEA GARATZENI, 2022 URTEKO 2. ZATIAREN**  
**EKARPENA BURUTZEA.**

Ikusirik 2022ko otsailaren 9ko dataz, Tolosaldea Garatzen-ek aurkezturiko idatzia, non, 2021eko abenduaren 13ko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, Alkizako Udalarik 2022 urteari dagokion ekarpena 5.913,00 eurotako dela jakitera ematen dio, lehenengo ekarpena, 2.956,50 eurotako martxoaren 30erako eta bigarrenengo ekarpena irailaren 30erako egin behar dena 2.956,50 eurotako.

Ikusirik 2022ko Udal aurrekontuetako 422.943.02.01 partidan aurrekontu nahikoa aurreikusten dela gastu honi aurre egiteko.

Ikusita 2021eko martxoaren lehen eguneko Udalbatzak, onestu zuela Tolosaldea Garatzen-eri egin beharreko ekarpen osoa. Bi zatitan ordaintzen dena, lehena otsailaren 30a baina lehen eta bigarrena irailaren 30a baina lehen.

Ikusita oraingoan Tolosaldea Garatzenek egiten duen eskaera, non bigarren ekarpena burutzeari buruzkoa.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuek



ALKIZAKO UDALA

## ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Tolosaldea Garatzen-i 2022 urteko ekitaldiari dagokion bigarren ekarpena onestea eta burutzea, 2.956,50 eurotako delarik.

BIGARRENA.- Gastua 2022 urteko udal aurrekontuko 422.943.02.01 partidaren kargura egitea.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

**ALKIZAKO ERRETORE ETXEAN IGOGAILUAREN IPINTZEA ETA IRISGARRITASUN BALDINTZEN HOBEKUNTZA LANAK EGITEKO PROIEKTUAREN ALDAKETAREN ONESPENA**

Bertaratuek aho batez gaia mahai gainean uztea erabakitzen dute informazio gehiago lortu arte.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

### **HAMALAU GARREN PUNTUA** **MOZIOAK, ERREGUAK ETA GALDERAK**

**10.1.2022KO AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEARI BURUZKOA**

Ikusita Eudelek aurkeztutako 2022 azaroaren 25eko adierazpen instituzionala, emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzkoa, non ondorengo dioen:

#### **“Sexu-jazarpena eta emakumeen aurkako beste sexu-indarkeria mota batzuk espazio publikoetan**

*Azaroaren 25ean emakumeen beraien eskubidea aldarrikatu nahi dugu, espazio publikoa berdintasun-baldintzetan erabiltzeko eta horiez gozatzeko, herritartasun osoari dagokien eskubideak bermatze aldera. Hitz batez, norberaren askatasun indibidual eta kolektiboaren garapena bermatzea.*

*Emakume askok aurrerapenak lortu dituzte, banaka egindako ahalegin tematiaren bidez; bai eta mugimendu feministek eta beste erakunde batzuek egindako lanaren bidez ere, espazio publikoak eta pribatuak*



ALKIZAKO UDALA

*gizonen eta emakumeen artean banatzeko dikotomia gainditzeko helburuarekin. Hala ere, bi aldeen arteko desberdintasuna agerikoa da oraindik, batzuek eta besteek bizitza publikoan parte hartzeko izan dezaketen erabileran, bai eta gure hirietako eta herrietako kaleez gozatzeko eta haiez jabetzeko orduan ere.*

*Berdintasunezko erabilera hori murrizten duten mekanismo anitzen artean, sexu-indarkerian jarri nahi dugu fokua; izan ere, mundu osoko emakumeak eta neskatilak espazio publikoan sufritzen ari dira.*

*Emakumeen eta nesken aurkako sexu-indarkeria, indarkeria matxista normalizatuaren testuinguruan, helburu argia du, funtzio sozial zehatz bat: emakumeak kontrolatzea eta haien askatasuna murriztea, hain zuzen ere. Zehazki, jai- eta aisialdi-testuinguruetan gertatzen den sexu-indarkeriak emakumeen sexualitatea kontrolatzeko funtzio hori betetzen du. Era berean, haien nahia, gorputza, mugikortasuna, espazio publikoko okupazioa, gizarte-harremanak eta berdintasun baldintzetan gozatzeko eskubideak kontrolatzea ere.*

*Beraz, euskal politika publikoen eta administrazioen betebeharra eta helburua da eskura dituen estrategia eta mekanismo guztiak sustatzea, emakumeek eta neskek beren herritartasun osoa gauzatu ahal izateko gure hiri eta herrietako espazio fisikoan, eta horiek erabiltzea, berdintasun-baldintzak bermatuta.*

*Kontuan izan behar dugu erreklamaturako eskubidea ez dela segurtasunera mugatzen, baizik eta espazio batean bizitzeko sarbidera eta askatasunera zabaltzen dela; sozializatzeko, bere egiteko eta eraldatzeko, emakumeen eta nesken interesen, nahien eta beharren arabera.*

*Toki-administrazioei dagokie, beren politika publikoen eta hiri-plangintzaren bidez, espazio publikoak emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko leku lagunkoi bihurtzea.*

*Nazio Batuen Erakundearen ekimenak, «Hiri seguruak eta espazio publiko seguruak», espazio publiko seguruak eta ahalduntzaileak sustatzen du emakumeentzat eta neskeentzat, sexu-jazarpenik eta bestelako sexu-indarkeriarik gabe, berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzeko aldeko Herri-Itunaren ildotik.*

*Esparru horretan, Alkizako udalak, aho batez, bere gain hartzen ditu konpromiso hauek:*

- 1. Era sakonean ezagutzea emakumeei espazio publikoa ukatzeko modu anitzak, tokiko politiken diseinuan eta garapenean kontuan hartzeko.*



ALKIZAKO UDALA

2. *Lege eta politika integralen ezarpen eraginkorra bultzatzea, espazio publikoetan sexu-indarkeriari aurrea hartzeko eta erantzuteko. Eta, era berean, gaitasunak, sentsibilizazioa, komunitate-mobilizazioa eta beste estrategia batzuk garatzea.*
3. *Aldaketak bultzatzea jarreretan eta portaeretan, emakumeek eta neskatok indarkeriarik gabeko espazioez gozatzeko dituzten eskubideak bermatze aldera. Hori gauzatzeko, errespetuzko genero-harremanak, genero-berdintasuna eta segurtasuna sustatzea espazio publikoetan.*
4. *Inbertsioak sustatzea, espazio publikoetan hautemandako segurtasun errealari dagokionez; genero-ikuspegia ziurtatzea hiri-plangintzan, emakumeen beharrianak kontuan har daitezen.*
5. *Berdinsarea tokiko jardunbide sare gisa indartzea, ekimenei eta jardunbide egokiei buruzko ezagutza-trukea errazteko. Eta hiri eta herri seguru eta inklusiboak lortzeko, emakumeentzat eta nesKentzat.*
6. *Beste erakunde eta administrazio batzuekin lankidetzan aritzea, Emakunde eta foru-aldundiekin besteak beste; gizarte-taldeekin, feministekin, ere, emakumeek eta neskek aukera izan dezaten espazio publikoaz segurtasunez eta berdintasunez gozatzeko.*

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 20.30etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*

